

CIBOURE PART EN LIVRE

ZIBURU HARTU LIBURU

Sports & jeux 26/06 >> 17/07 Kirol & jokoak



© Disables Pour le Plein en Livre / Conception graphique - Studio CC

EDITORIALA

Aurten, *Partir en livre* ekitaldiak 10. urteburua ospatzen du!
Eta *Ciboure part en livre – Ziburu hartu liburu* ekitaldiak
7 urte betetzen ditu!

7 uda izan dira irakurtzeko atseginaren ohoretan, tailer,
joko, ikusgarri eta topaketa ugariri esker, mediatekan
antolatuak baita herriko zoko guzietan ere, baratzetan,
plazetan eta hondartzan!

Urte olimpiko honetan, Hartu Libururen gaia "kirola
eta jokoak" izanen da: izan ttipi ala handi, bakarrik ala
taldean, irakurle ala kirolari, denek ihes egiteko, amesteko,
atsegiteko gogo bera partekatzen ahalko dute.

"Irakurri, mugiri!" izanen da beraz 2024. edizio honen leloa!

Emilie Dutoya,
Kultura, ondarea eta elkarte biziaren
ardura duen auzapezordea

eta Fanny Lascube,
Hizkuntza politikaren ardura
duen kontseilari ordezkaria



ZIBURU HARTU LIBURU!

— EKAINAREN 11TIK 20RA —

Ziburuko ikasleak gazteendako liburuen idazleak ezagutzera gomitatuak izanen dira!

Ikasturte hondar honetan, Ziburuko eskoletako ikasleei lurraldeko idazleekin une berezi bat partekatzea proposatuko diegu. Haien liburuak ezagutzeko eta liburuari dagozkion lanbideei buruz trukatzeko aukera ukanen dute.

Horrela, topatzen ahalko dituzte **Lucile Placin**, besteak beste *Capricieuse* (mainontzia) eta *Les mondes de Coco* (Cocoren munduak) obren idazle-irudigilea; **Eider Eibar**, irudigile eta euskarazko eduki digitzeko sortzaile; eta **Christelle Dierickx**, Donibane Lohizuneko Le 5ème art dendako liburu saltzaile, liburuaren katea aurkezteko.



-k lagundurik



HASI BAINO LEHEN...

— EKAINAREN 19TIK, ASTEAZKENA, UZTAILAREN 20RA, LARUNBATA —


Mediateken sarearen Bookface desafioa

Larrungo mediateken sareak desafio bat botatzen dizue! Zuen mediatekako langileek gogo handiz apailatutako obra hautaketa batetik abiatuz, perspektibekin eta liburuetaiko azalekin jolastu argazkirik hoberena proposatzeko, etxean, mediatekan edo kanpoan!

Ondotik, argazkiak zuen mediateketan aurkeztuak izanen dira irailetik goiti!

📍 Nahi duzuen lekuan

👤 Denentzat



RESEAU
DES MÉDIATHÈQUES
DE LA RHUNE



LARRUNGO
MEDIATEKEN
SAREA



— EKAINAREN 26A, ASTEAZKENA, 15:00ETAN ETA 19:00ETAN —

Añaren istoria konta iezaazu

Maddi Zubeldiak eta Ixabel Milletek Añaren istoria ezagutzera gomitatzen zaituztete, 1951ko abenduan sortu zenetik Ziburutarrei aurkeztua izan arte, 2024ko Bixintxoko bestetan. Zatozte familia artean Aña eta bere urpeko lagunak gorabeherak entzuterako!

Arratsaldean, zatozte gustuan jartzera gure etzaulki erosoetan Ithurri Baitan, eta zuen gogoak eskapatzera utzi!

Eta arratsean, Passeur itsasontzira igo zaitezte, literatura-espedizio baterako badiaren bihotzean!

EUS
FR

📍 15:00etan Ithurri Baitako lorategian eta 19:00etan Passeur itsasontziaren bornuan, Larraldeniatik abiatuz

👤 Denentzat, 5 urtetik goiti

✍️ Izena eman behar Kultura, ondarea eta elkarte bizitza zerbitzuaren aldean



— UZTAILAREN 2A, ASTEARTEA, 19:00ETAN —

Irakurketa-ibilaldia Libreplume

Egunaren bukaeran, Libreplume elkarteak Kirol Zelaira eramanen zaituzte kirola eta jokoak gaiaren inguruko irakurketa-ibilaldi baterako. Ipuin kontalariak segitu lasai, literatura eta kirol-ibilaldian zehar, Urdazuri bazterreko berdegune zoragarri honen erdian.

EUS
FR

📍 Kirol Zelaiko jostalekua

👤 Denentzat

✍️ Izena eman behar Kultura, ondarea eta elkarte bizitza zerbitzuaren aldean

— UZTAILAREN 3A, ASTEAZKENA, 10:00-12:00 ETA 14:00-16:00 —

Ziburuko liburu-kutxa berria apain ezazue!

Berri ona! Ziburuko hiriak Gurutze Saindu auzotegiko telefonotegi zaharra liburu-kutxa bihurtzen du! Yoanna Diaz artistak denek esku ezarritako toki berri hori elkarrekin apaintzera gomitatzen zaituzte, tailer parte hartzaile baten denboran.

Zatozte bazter utzitako toki honi bizi berria eta koloreak ematera!

FR

📍 Zaldi Xurito hiribideko aparkalekua

👤 Denentzat

✍️ Izena eman behar Kultura, ondarea eta elkarte bizitza zerbitzuaren aldean

Mediateka zuengana dator Ziburuko auzotegietan. Irakurtzeko gune iragankorrak antolatuta izanen dira eta, goiz osoan zehar, liburu eta joko ugari kontsultagarri izanen dira lekuan berean. Eta auzotegi bakoitzak ukanen du bere berezitasuna! Egun guziez, sormen ateleriak eskainiko dizkizue Ciboure Cité d'Artistes elkarteak.

Eguraldi txarra baldin bada, mediatekan bilduko gara..

UZTAILAREN 9A, ASTEARTEA

Goizalde ludikoa

Joko ugari proposatzeko goiz osoan Koxe Basurco karrikan plantatuko da L'Atelier de Bidache, elkarte ludoteka.



📍 Zubiburu
👤 Denentzat
✍ Urririk

EUS
FR

UZTAILAREN 10A, ASTEAZKENA

Lehen haurtzaroari eskainitako goiza

9:30tan eta 10:30tan, ttipi-ttipiek baita handiagoek ere "Jardin de Jules" konpainiako Géraldine Coursanen ipuinak entzuteko aukera izanen dute, gorputzaren gaiaren inguruan. Eta irakurketen ondotik, hurrek eskulan tailer batean parte hartzen ahalko dute.

📍 Marinela auzotegia
👤 Denentzat
✍ Urririk

FR



UZTAILAREN 11, OSTEGUNA

Mediateka harea gainean jarriko da

Etzaulkiak, liburuak, jokoak izanen dira zuen zain Zokoako hondartzan, oinak urean eta burua ipuinetan ibiltzeko!



📍 Zokoako hondartza
👤 Denentzat
✍ Urririk

EUS
FR

UZTAILAREN 16A, ASTEARTEA, ETA 19A, OSTIRALA,
10:00ETATIK 12:00ETARA

Posta karta tailerra «Kontatzeko uda»

Hondartza iguzkitsuek eta itsaskiak zuen zain izanen dituzue Donibane Lohizune eta Ziburuko mediatekak eskainitako irakurketa saio hauen kariatara.

Oporretako istorioak entzungai izanen dituzue Errekoletak komentu ohiaren barnean atzemanen duzuen « Denak hondartzara » erakusketaren bihotzean ibiliz.

Haien ahaideekin partekatuko duten karta postala sortuz, haien ametsetako hondartza ondotik irudikatzeko parada eskainia, gazteenek ideia berriak ukan ditzaten.



FR

📍 Les Récollets - Errekoletok AOIZ

👤 Denentzat

✂️ Izena eman behar Les Récollets -
Errekoletok AOIZaren aldean
05 54 81 07 40



UZTAILAREN 17A, ASTEAZKENA, 15:00-20:00

Festibalaren bururatzea Untxinen

2024ko edizioa molde ederrean bururatzeko, Koxe Arbiza plazak kanpaleku itxura hartuko du, etzaukiekin eta karabanekin!

Abernuncio konpainia plazan jarriko da 15:00etatik 19:00etara eta 30 minutuko **soinu eta antzerki esperientzia** batean murgiltzea proposatuko dizue. Hasteko, aire zabaleko igurikagela batean, bizi-ipuinak eta sekretuak entzun itzazue. Gero, argazki kabina itxurako karabana ttipi honetan sar zaitetzte, frantses hizkuntzaren erran-molde herriko, irudizko eta poetikoen inguruko lekukotasunak ezagutzeko: faire le joli cœur (bihotz politarena egin), être vent debout (haize kontra izan), perdre le nord (iparra galdu), s'en pourlécher les babines (ezpainak milikatu)...

📍 Koxe Arbiza plaza

👤 Denentzat

🗨️ Urririk

FR

Libreplume elkartea eta **beste kirol-elkarte batzuk** ere plazan egonen dira **kirol eta literatura-desafioak** proposatzeko. Kirola eta irakurketa, denentzat dira: orduan zatozte buruz buruka aritzea eta erronkak altxatzea, izerdiz blai ipuinak entzuteko eta irri egiteko!

Biziki koloretsua izanen den arratsaldea osatzeko, **La Grande Illusion liburu saltegia** berriz etorriko da. Bere karabana irrati estudio bihurtuko du tailer batzuk proposatzeko: zatozte **soinudun posta kartak** sortzera edo **kirol berri emaille** gisa aritzeko lehen urratsetan trebatzera!

Gurekin bil zaitetzte arratsalde osoan kirolez eta olerkiaz gozatzera eta, batez ere, denok elkarrekin jolastera!



ARGIBIDEAK ETA IZEN EMATEAK

Egitarauan sartutako ekitaldi guztiak urririk dira.

Kultura, Ondarea eta Elkarte bizitza zerbitzua

06 10 75 45 61

animations@mairiedeciboure.com



Mediateka

05 59 47 12 93

mediatheque@mairiedeciboure.com

Lineako txarteltegia

<https://billetterie-ciboure.mapado.com/>



INTERNET ETA SARE SOZIALETAN JARRAI GAITZAZUE

www.ziburuko-hiria.eus

f cultureciboure

f mediatheque.ciboure



Ziburuko hiria • 05 59 47 26 06 • mairie@mairiedeciboure.com

Argitalpen zuzendaria: Ziburuko auzapeza

Testuak: Kultura, ondarea eta elkarte bizitza zerbitzua • Sortzailea: Marie Surzur, komunikazio zerbitzua

Liburuxkaren apailatzea: Donibanekopi

Inprimaketa: Donibanekopi • Argazkiak: Mapirudi, Philippe Beheydt, Ville de Ciboure

Inprimaketa: Donibanekopi • Liburuxka hau birziklatutako paperean inprimatua izan da.

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462 -

Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463